

# XXIX. TOPAKETAK

## “Hizkuntzen garapena eskolako errealitatean”

euskal eskola publikoak

sarean

LEIOAKO ZIENTZIA-TEKNOLOGIA FAKULTATEAN

2010 AZAROA 18

2010.eko azaroaren 18an

LEIOAKO UNIBERTSITATEA

## AURKIBIDEA

1. Aurkezpena
2. Lan-taldeak
3. Proposamenak
4. Eranskina: *Prentsa oharra*

# 1 – Aurkezpena

---

SAREAN Elkarreak "Hizkuntzen garapena eskolaren errealitatean" lanketa egin du 2010eko azaroaren 18an burutu dituen XXIX. Topaketetan.

Jardunaldian Hezkuntza Sailak ateratako "Hezkuntza Marko Hirueledunaren saiakuntza-proiekturen" agindua aztertu da, beti ere ikastetxe publikoetan arreta handiz hartzen diren bi atal hauek kontuan hartuta:

**1. Gizarteak eskolari egiten dizkion eskakizunak arlo linguistikoari dagokionez.**

Gaur egun gero eta gehiago hitz egiten da atzerriko hizkuntza menperatzearen garrantziaz. Ikastetxe Publikoetan konpetentzia hori hobetzeko hainbat esperientzia egiten ari dira eta aukera berriak etengabe aztertzen dira.

Gainera ez dugu inoiz ahazten Eskola Publikoak euskalduntze prozesuan izan duen eta duen garantiza eta gure ikastetxeetan dauden ikasle gehienen gurasoek eredu euskalduna aukeratu dutela beren seme-alabentzat.

**2. Eskolako errealitatea.**

Ikastetxe Publikoetan dugun aniztasuna, eredu linguistikokoak, Curriculumak, irakasleek euskalduntzeko egin duten ahalegina, ikastetxe bakoitzeko inguruak duen garrantzia, ikastetxeetan ditugun baliabideak... Atal guzti hauek garrantzitsuak dira eskolako errealitatea definitzeko; ez da esan behar errealitate anitzarekin egingo dugula topo eta ikastetxeetan egoera bakoitzari trataera egokia emateko ahaleginetan gaudela.

Topaketetan, ohi dugun bezala, gaiaren kokapena egin da, *Europako komunitateen Batzordeak* egindako gomendioaren aipamena eginez (Comunicación de la comisión al Consejo, al Parlamento Europeo, al comité económico y social europeo y al comité de las regiones - Bruselas, 22.11.2005) eta eztabaida hasi baino baino lehen aditu batzuen ikerketa eta iritziak biltzen dituen lana aurkeztu da.

Azkenez, XXIX. Topaketen partaideek, hiru talde txikitan antolatuta, hausnarketa eta proposamenak egin dituzte.

SAREAN Elkarreak proposamen horiek bereak egiten ditu eta Hezkuntza Sailaren arduradunei bidaltzeko konpromisoa hartzen du.

## 2 - Lan-taldeak

### 1- DATUAK

Lan-taldeetako zeregina errezteko, gidoi bat izan dugu. Partaide bakoitzak gidioia bete ondoren, puntu bakoitzaren inguruko eztabaida egin da eta bukaeran proposamen nagusiak zehaztu dira.

Jasotako orrien araberako datuak:

- Erantzunak: 44
- Ikastetxeen tamaina eta ereduak:
  - 20 gela baino gutxiago: Partaideen % 20 a
  - 20 - 30 gela: Partaideen % 60 a
  - 30 gela baino gehiago: Partaideen % 20

Ereduei dagokienez, D da bakarra edo nagusia ikastetxe guztietan. B eredia 30 gela baino gehiago duten lau ikastetxetan bakarrik dago eta kasu gehienetan desagertzeaz dago. A eredurik ez da azaltzen.

### 2- AGINDUAREN BALORAZIOA

Hezkuntza Sailak "Hezkuntza Marko Hirueledunaren saiakuntza-proiektua" egiteko ateratako aginduaren balorazioa egin zen:

Topaketetan jasotako 44 inkestaren arabera, Proiektu Hirueledunean izandako parte hartzea ondokoa izan da:

BAI	EZ	ZURIAK
2	38	4

Aginduaren atal nagusien balorazioa hauxe izan da:

	Oso ondo	Ondo	Erdizka	Gaizki
1.- Aurkezteko ikastetxeek izan zuten epea	-	2	4	38
2.- Ikasleak, taldeak aukeratzeko modua	-	1	9	31
3.- Hizkuntza bakoitzari eskaini beharreko gutxieneko ordua	-	4	18	18
4.- Eskaintzen diren baliabide pertsonalak	-	7	13	23
5.- Eskaintzen diren diru baliabideak	-	9	16	14
6.- Eskaintzen den aholkularitza	-	7	18	10
7.- Eskaintzen den formazioa	-	5	16	15
8.- Proiektuaren iraupena	1	18	14	6
9.- Egin beharreko proiektua	-	8	15	10
10.- Irakasleei eskatzen zaien konpromisoa	1	8	12	16

Proiektu honi egiten zaion lehen kritika proposamenak jasotzeko aukeratu den modua izan da, eta bereziki azpimarratu da ikastetxeekin ez dela alde aurretik ezertarako kontatu. Ez da ahaztu behar proiektuek arrakastatsuak izateko, Eskola Komunitatearen eskakizuna izan behar dutela.

Begi bistan dago aginduaren balorazio orokorra ez dela batere ona izan XXIX. Topaketetan parte hartu zuten irakasleen ikastetxeetan.

Aginduan ikusten diren akats nagusienak ondokoak dira:

- Proiektuak aurkezteko epea. Garrantzi honetako erabakia ezin da hartu ikastetxean eztabaida sakona egin barik.
- Ikasleak aukeratzeko moduak oso balorazio txarra izan du. Ez da egokia ikusten ikastetxe baten barruan mota horretako desberdintasunak sortaraztea.
- Hizkuntza bakoitzari eskaintzen zaion ordu kopurua ere guztiz desegokia ikusten da. Galdera nagusia sortzen da: Non geratzen da ikastetxearen autonomia bere hizkuntz proiektua garatzeko? Zergatik banaketa hori gure ikasle askorentzat euskera ere eskolan bakarrik ikas dezaketen hizkuntza denean?
- Baliabide arloan ez da nabaritzen Hezkuntza Sailak Eskola Publikoan benetako apostua egin duenik.
- Aholkularitza eta egongo omen den formazioan ez dago konfidantza handirik.
- Ikastetxeetan hizkuntz bateratuen proiektua egin behar dela onartzen da baina proiektu serio eta sakona egin behar dela uste dute Topaketan partaideek; ezinezkoa da arineketan eta alde aurretik ikastetxean akordio garrantzitsuak hartu barik.
- Ez da egokia proiektuaren sama eta erantzukizuna irakasle batzuen gain bakarrik uztea.

Ondo samar baloratu den atal bakarra proiektuaren iraupena izan da.

### *3 - ELEANIZTASUNAREN INGURUKO GOGOETA*

Aginduaren balorazioaren ondoren eleaniztasunaren inguruko gogoeta egin da hiru taldetan. Bertan aditu batzuen iritziak aipatu dira, arlo honetan ikastetxe batzuek izandako esperientziaz luze hitz egin da, ikastetxeetatik egindako proposamenak eta Administrazioaren erantzuna ezagutarazi dira eta saioan agerian dauden kezkek azaleratu dira.

Gogoetaren ondorioz, ondoko ideia bateratuak azpimarratu dira:

1. **Eskola Publikoak** dagoeneko **eleaniztasunaren** bidetik abiatuta daude, nahiz eta egoera guztiz desberdinetan egon. Europako Parlamentuan egindako proposamenarekin ados daude (*Una nueva estrategia marco para el multilingüismo*) eta prest aurkitzen dira aurrera egiteko aukeratzeko den bidea egokia ikusten baldin bada.

2. Ikastetxeen **autonomia** ezinbesteko baldintza da hizkuntzen trataeran. Lurralde eta zonalde bakoitzak bere ezaugarriak ditu eremu linguistikoan eta ez da egokia denok berdin tratatzea.
3. Eleaniztasuna garatzeko ezartzen den edozein proiektuak bermatu behar du **euskarak** izan behar duen babesa ( ikasle askorentzat eskola da euskalduntzeko eremu bakarra) eta ezin da inondik inora atzerriko hizkuntzaren parean jarri.
4. Proiektua martxan jarri baino lehen **irakasleak formatuta** egon behar dira.
5. **Hizkuntzen trataera bateratua** garatzeko proiektuak eztabaida sakonaren ondorioa izan behar du eta gauzatzeko aholkularitza eta formakuntza serioa ezinbestekoak dira.
6. **Metodologia** aldaketak eman behar dira eta horrek ere ikastetxeetan lanketa serioa eta koordinazioarako aukerak eskatzen ditu.
7. Aurreko puntuetan azaldutakoa lortzeko, Hezkuntza Sailak behar diren **baliabideak** jarri beharko ditu:
  - ❖ Denbora koordinatzeko, hausnarketa egiteko, erabakiak hartzeko...
  - ❖ Baliabide pertsonalak beste sistema batzuk erabiltzeko, desdobleak, pertsona bat baina gehiago geletan...
  - ❖ Material didaktikoak.

## 3 - Proposamenak

---

XXIX. Topaketetan bildutako profesionalek, Eskola Publikoetan eleaniztasuna era serioan bultzatzeko, ondoko proposamenak egin dituzte:

### 3.1 - Ikastetxeetan

- ❖ Klaustroan helburu eta metodologia arlotan hausnarketa sakona egin eta erabakiak hartzeko bideak zehaztu.
- ❖ Hizkuntza Bateratuen Proiektua osatu.
- ❖ Organo Gorenaren oneritsia proiektua martxan jartzeko.

### 3.2 - Hezkuntza Saila

- ❖ Arlo linguistikoari dagokionez, Eskola Publiko bakoitzaren errealitatea kontuan hartuta, ikastetxearen autonomia errespetatu Hizkuntza Tratatua egokia egiteko.
- ❖ Edozein proiektu proposatu baino lehen, ikastetxeen iritzia kontuan hartu.
- ❖ Eskolan eleaniztasuna bultzatzeko irakasle eleanitzak behar ditugu. Gaurko irakasleak formatzeaz gain, Irakasle Eskoletan kontuan hartu behar dute etorkizuneko irakasleen formakuntzan konpetentzia hori lortu behar dela.
- ❖ Eskola Publikoetako errealitate anitza kontuan hartuko dituzten ikerketa gehiago egitea behar-beharrezkoa ikusten da.
- ❖ Beste hizkuntzak bultzatzeaz gain, Euskararen normalkuntzaren alde benetako apostua egitea eta horretarako behar diren baliabideak erabiltzea.
- ❖ Eleaniztasuna bultzatzeko beste bide batzuk ere kontuan hartzea: taldeak bikoiztu, elkarrizketarako irakasle laguntzaileak...
- ❖ Ikastetxeetan hiru hizkuntzen konpetentziak hobetzeko dauden esperientzi onak ezagutu, indartu eta zabaltzeko lana egin.
- ❖ Administrazioari biziki eskatzen zaio gai garrantzitsu honi heltzeko abiapuntu pedagogikoak erabil ditzala.

### 3.3 - Gizarte arloan

- ❖ Herritar eleanitzak lortzea ez da eskolaren lana bakarrik; komunikabideek duten zeregina, Administrazioen elkarlana eta familien inplikazioa osagarriak eta guztiz garrantzitsuak dira.

## 4 – Eranskina

### PRENTSA OHARRA

SAREAN Elkarateak azaroaren 18an Leioako Unibertsitatean XXIX. TOPAKETAK burutu ditu. SAREANek EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako 178 ikastetxe publiko biltzen ditu eta beren helburu nagusiak, bai ikastetxeen artean baita Administrazioarekin ere harremanak eta elkarlana bultzatzea dira, nagusiki ikastetxeen eta sistemaren antolakuntza arloari dagokionean.

Jardunaldi hauetan nagusiki zuzendaritza esparruan dabilen kideek hartu dute parte, baina beste Topaketetan bezala, guraso, sindikatu, unibertsitateko irakasle eta Hezkuntza Administrazioako kideen ekarpenak ere jaso ahal izan ditugu.

#### **"Hizkuntzen garapena eskolako errealitatean"**

Jardunaldietako aztergai nagusia Hizkuntzen garapena eskolako errealitatean izan da.

Gaur egungo gizartean gero eta garrantzi gehiago hartzen ari da hizkuntzen inguruko eztabaida. Atzerriko hizkuntzan (ingeleza gehienetan) dugun konpetentzia oso bajua dela esaten da eta Europako Parlamentuak ematen dituen aholkuak jarraituz Hezkuntza Administrazioak, ikasleek ingeles arloan duten konpetentzia hobetzeko asmoz, proposamen bat luzatu die ikastetxeei.

Argi esan behar da Ikastetxe Publikoetan denok gaudela Hizkuntz konpetentziak hobetzearen alde, bai atzerriko hizkuntzan baita ditugun bi hizkuntza ofizialetan ere eta hori lortzeko antzinatek ari gara gogoeta egiten, formatzen eta hobekuntzak ezartzeko esperientzi desberdinak egiten. Oso eremu garrantzitsua iruditzen zaigu eta horregatik uste dugu Hizkuntz konpetentziak hobetzeko hautatzen dugun era, hausnarketa sakonaren ondorioa izan behar duela, beti ikastetxeko errealitatean oinarrituta.

Prozesu horretan nolabait laguntzeko, SAREAN Elkarateak gaia mahai gainera ekarri du XXIX. Topaketetan.

#### **Eleaniztasuna, etorkizunari begira dugun erronka**

Jardunaldiaren lehen zatian, SAREAN Elkarteko talde dinamizatzaileak "Eleaniztasuna: Zergatik? Noiz? Nola?" izenburupean, aditu desberdinen iritzi eta ikerketen bilduma aurkeztu du.

Ondoren ekitaldiaren zatirik garrantzitsuena burutu da, hau da, lan-taldeen jarduna. Bertan, Topaketetako partaideek, Hezkuntza Sailak egin duen proposamena eta Eskola Publikoetan dugun egoera aztertzeko aukera izan dute; era berean eleantzasunaren bidetik aurrera egiteko iradokizunak egin dituzte. Hona hemen eztabaidan azpimarratu diren puntu nagusienak :

- Denok onartzen dugu etorkizuneko gizartean eleanitza izatea beharrezkoa izango dela. Beraz, Eskola Publikoak ikasle eleanitzak formatzeko prestakuntza egin behar du, helburua lortzeko bideak sakonean aztertu ondoren erabakiak hartuz.
- Eskola Publikoetako errealitate anitza kontuan hartuko dituzten ikerketa gehiago egitea behar-beharrezkoa da.
- Eskolan eleaniztasuna bultzatzeko irakasle eleanitzak behar ditugu. Gaurko irakasleak formatzeaz gain, Irakasle Eskoletan kontuan hartu behar dute etorkizuneko irakasleen formakuntzan konpetentzia hori lortu behar dela.
- Herritar eleanitzak lortzea ez da eskolaren lana bakarrik; komunikabideek duten zeregina, Administrazioen elkarlana eta familien inplikazioa osagarriak eta guztiz garrantzitsuak dira.
- Hezkuntza Sailak egin duen proposamenaren inguruan ondoko iritziak jaso dira:
  - Ez da alde zuzenetatik ikastetxeekin kontatu eta proposamena heldu denean ez da astirik egon aztertzeke, zalantzak argitzeke eta planifikatzeko.
  - Proiektuan parte hartzeko baldintzen alorrean:
    - Ikastetxetako maila bereko ikasle guztiak sartzeko aukera ez izatea ez da egokia ikasleen arteko desberdintasun arriskutsuak sor daitezkeelako.
    - Proiektuaren jarraipena ziurtatzeko irakasleen iraunkortasuna beharrezkoa da, baina baldintza hau gure ikastetxetan sarritan betetzen ez denez, ezinbestekoa ikusten da egoera honi irtenbidea topatzea.
    - Ikastetxe bakoitzaren hizkuntz egoerari hobeto erantzuteko, denboraren banaketan malgutasunekin jokatzeko egokiago ikusten da.
  - LH 4. mailan arloren bat atzerriko hizkuntzan emateak sortzen dituen zalantzak:
    - Gure ikasle askorentzat euskara ikasteko aukera bakarra eskola da.
    - Egindako ebaluaketetan agerian geratu da zailtasunak ditugula euskarazko maila on bat lortzeko.
    - Ikastetxe askotan, euskara hobetzeko duten beharra ikusirik, hauek murriztea eta ondo menderatzen duten gaztelerako orduak igotzea ez da egokia ikusten.

### **Eleaniztasuna eskoletan, arrazoi pedagogikoetan oinarritutako erabakia**

XXIX. Topaketen partaideek, kalitatezko eleaniztasunaren bila, eskaera hau egiten diete Hezkuntza Sailaren arduradunei:

Beste hizkuntzak bultzatzeaz gain, Euskararen normalkuntzaren alde benetako apostua egin dezala eta horretarako behar diren baliabideak erabil ditzala:

- Ikerketak egiten
- Euskararen erabilpena bultzatzen
- Ikastetxetan hiru hizkuntzen konpetentziak hobetzeko dauden esperientzi onak ezagutu, indartu eta zabaltzeko lana egiten.

- Ikastetxeei autonomia eta laguntza ematen bere ezaugarrien araberako Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua garatzeko.
- Irakasleen Formazioa indartzen eta Irakasle Eskoletan ikasle eleanitzak formatzen.
- Ahozko komunikazioak duen garrantzia aitortzen lantzeko baliabideak ematen: talde txikiak egiteko, ingelesez hitz egiteko irakasle laguntzaileak...

Azkenean Administrazioari biziki eskatzen diogu gai garrantzitsu honi heltzeko abiapuntu pedagogikoak erabil ditzala.

### **Elkarlana, Eskola Publikoaren proiektuen oinarria**

Jardunaldiei amaiera emateko Hezkuntza Sailaren ordezkariak izan genituen.

**Marian Ozcariz**, Sailburuorde andereak Hezkuntza Sailak aurkeztu duen proposamenaren inguruko azalpenak eman zituen:

- Deialdiaren arrazoia
- Proiektuaren ezaugarriak
- Etorkizunerako asmoak

Sailburuorde andereak Topaketetako partaideek egindako hausnarketaren ondorioak ezagutzeko interesa azaldu zuen eta etorkizunari begira proposamenak aztertzeke konpromisoa hartu zuen.

Amaitzeko, **Francisco Luna** jaunak ISE-IVEIko Zuzendariak hirueleaniztasuna bultzatzeko proiektuaren ebaluazioa nola burutuko den azaldu zuen.

**XXIX. Topaketetan** bildutako irakasleek argi utzi zuten eleaniztasuna bultzatzeko Eskola Publikoan egin den lana, eta etorkizunari begira jarraitzeko borondate osoa dagoela. Bide honetan Hezkuntza Saila eta ikastetxeen arteko **elkarlana** faktore garrantzitsua da eta **SAREAN Elkarleak** horren aldeko konpromisoa hartzen du.

**SAREAN Elkarleak**

2010ko azaroa

## NOTA DE PRENSA

*La asociación SAREAN ha celebrado sus 29 TOPAKETAK el día 18 de noviembre en la Universidad de Leioa.. SAREAN, que reúne a 178 escuelas públicas de Educación Infantil y Primaria de la C.A.V, tiene como objetivos prioritarios impulsar las relaciones y el trabajo colaborativo tanto entre los centros de su red como entre éstos y la Administración, fundamentalmente en los aspectos que inciden o están relacionados con la gestión y organización de los centros.*

*La mayoría de participantes en estas Jornadas han sido personas que ejercen funciones directivas en las escuelas, aunque al igual que en anteriores encuentros, han tomado parte también miembros de asociaciones de padres y madres, sindicatos, profesorado de la UPV y representantes de la Administración Educativa.*

### **"El desarrollo de las lenguas en la realidad de la escuela"**

Las Jornadas se han centrado en el debate sobre el desarrollo de las lenguas dentro del contexto real de la escuela.

La sociedad en la que vivimos da cada vez más importancia al debate en torno a los idiomas. Se dice que actualmente nuestra competencia en idioma extranjero, (generalmente Inglés) es muy bajo y la Administración Educativa siguiendo las indicaciones del Parlamento Europeo y con la idea de mejorar la competencia de los alumnos en Inglés, ha hecho una propuesta a los Centros Escolares.

Es necesario dejar claro que los Centros Escolares públicos están a favor de mejorar la competencia de los alumnos en los idiomas que trabajan tanto en lo que respecta al idioma extranjero como a los dos idiomas oficiales del territorio y para ello llevamos tiempo reflexionando, mejorando la formación del profesorado y haciendo experiencias encaminadas siempre a dicha mejora. Nos parece un ámbito de gran importancia por lo que creemos que las medidas mediante las cuales mejoremos la competencia en los idiomas deben estar basadas en la realidad de cada Centro, y ser fruto de una reflexión larga y profunda.

Con la idea de facilitar esa reflexión, la Asociación SAREAN ha traído este tema a debate dentro de sus XXIX Jornadas (Topaketak).

### **El multilingüismo, un reto de cara al futuro**

En la primera parte de las Jornadas el grupo dinamizador de SAREAN ha presentado una recopilación de opiniones y trabajos de investigación de varios expertos en el tema aunados bajo el título de " *Multilingüismo: ¿Por qué? ¿Cuándo? ¿Cómo?*"

Seguidamente y como parte más importante de las Jornadas, ha tenido lugar el trabajo de los participantes en grupos pequeños donde se ha debatido sobre varios aspectos relacionados con el multilingüismo, entre ellos el análisis de la propuesta hecha por el Departamento de Educación y las sugerencias en torno a las necesidades que se observan para avanzar en esa dirección. Se han destacado los siguientes puntos:

- Nadie duda en aceptar que la sociedad del futuro va a necesitar ser multilingüe. Así pues, la Escuela Pública también debe estar preparada para aceptar ese reto analizando los medios por los que se puede conseguir.

- Es necesario hacer más estudios que reflejen la variada realidad que vivimos en los Centros Escolares Públicos.
- Para plantear el multilingüismo con garantías, necesitamos profesorado multilingüe. Además de mejorar la formación del profesorado actual es necesario contemplar esta necesidad en las Escuelas de Magisterio con vistas a los profesores del futuro.
- Conseguir ciudadanos multilingües no es trabajo exclusivo de los Centros Escolares; la función de los medios de comunicación, el trabajo conjunto de las Administraciones y la implicación de las familias son aspectos complementarios y totalmente necesarios.
- Acerca de la propuesta concreta del Departamento de Educación se destacan las siguientes opiniones:
  - No se ha contado previamente con los Centros que a su vez no han dispuesto del tiempo necesario para analizar la propuesta, debatir, aclarar las dudas y planificar.
  - En cuanto a las condiciones de participación en el proyecto:
    - No se considera conveniente el tope en el número de grupos de cada Centro que puede crear diferencias peligrosas entre los alumnos de un mismo nivel.
    - Con objeto de garantizar la continuidad del proyecto se ve necesario contar con la estabilidad del profesorado. Dado que ésta es una característica que frecuentemente falta en nuestros Centros, es necesario encontrar la forma de que se cumpla.
    - Con respecto al número de horas que se propone en cada idioma se considera básico disponer de la flexibilidad que permita a los Centros dar la respuesta adecuada a su situación lingüística.
  - Con respecto a la impartición de otra área del curriculum en lengua extranjera en 4º de Primaria, se manifiestan algunas dudas:
    - Para una gran mayoría de nuestros alumnos la única oportunidad de aprender Euskara es en la escuela.
    - En las evaluaciones realizadas se ha demostrado que hay dificultades para conseguir el nivel adecuado en Euskara.
    - En muchos Centros donde la necesidad de mejorar la competencia de los alumnos en Euskara es patente, reducir las horas en este idioma y aumentar las de Castellano, idioma que dominan mejor, no se ve como una medida adecuada.

### **El multilingüismo en la escuela, una opción basada en razones pedagógicas.**

Los participantes en las XXIX Topaketak, teniendo como meta para los alumnos un multilingüismo de calidad, hacen a los responsables del Departamento de Educación la siguiente petición:

Que además de hacer esfuerzos por mejorar el castellano y el inglés, hagan una apuesta seria a favor de la normalización del Euskara y dediquen a ello los recursos necesarios:

- Haciendo estudios
- Promocionando el uso del Euskara

- Apoyando y dando a conocer las experiencias que se están haciendo en los Centros para mejorar las competencias en los tres idiomas.
- Dando autonomía a los Centros para desarrollar Proyectos Lingüísticos de acuerdo con las características de cada uno y ayudándoles en esta labor.
- Dando a la expresión oral la importancia que tiene a través de medios que permitan trabajar en grupos reducidos, personas de apoyo a la conversación en inglés...

Así mismo, se solicita de la Administración que a la hora de planificar un tema tan importante como es el multilingüismo en los Centros Escolares lo haga lo haga basándose en razones pedagógicas.

### **El trabajo conjunto, base de los proyectos de la Escuela Pública**

Como cierre de las XXIX Topaketak hemos contado con la presencia de dos representantes del Departamento de Educación. En primer lugar, La Viceconsejera de Educación, **Marian Ozcariz** dio información acerca del Proyecto propuesto por el Departamento:

- Razones para la convocatoria
- Características del Proyecto
- Planes de futuro para dicho proyecto

La Sra. Viceconsejera ha mostrado su interés por conocer las reflexiones y dudas de los participantes en las XXIX Topaketak, tomando el compromiso de estudiar las propuestas.

Para terminar D. Francisco Luna, Director del ISEI-IVEI ha dado a conocer los aspectos más importantes de la evaluación que se realizará a los grupos participantes en el proyecto propuesto por el Departamento para impulsar el multilingüismo.

Los participantes en las **XXIX Topaketak** han remarcado el trabajo que se está realizando en la **Escuela Pública** para impulsar el multilingüismo y la voluntad firme de continuar en el futuro. Para avanzar en esa dirección es un factor importante el **trabajo en común** de los Centros Públicos y el Departamento de Educación. La **Asociación SAREAN** toma su parte de compromiso en esa labor.

Asociación SAREAN  
noviembre de 2010